



**Kontratazio**  
publiko elektronikoa  
**Contratación**  
pública electrónica

## Orain inoiz baino errazagoa da lehiaketa elektronikotan parte hartzea Herri-erabilera anitzeko Osasun Txartel Elektroniko berriarekin (ONA)



[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)  
[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)




**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

18



# TXA

## PIDE USA DISFRUTA



- Inprimatutako datuak:
- Izen-abizenak
  - Osasun Txartelaren zk.
  - Gizarte Segurantzako zk.
  - Txartelaren iraungitze-data

Aitortutako ziurtagiridun txipa: identifikazioa eta sinadura elektronikoa

- Elementu teknologikoak:
- Banda magnetikoa
  - Z/N: telefono bidezko identifikazioa
  - Itsasontzien jokoak: telefono bidezko id.
  - Barra-kodea



- Inprimatutako osasun-datuak:
- Sendagilea
  - Osasun-zentroa
  - Osasun-zentroko telefonoa
  - Larrialdietako telefonoa

Orain errazagoa da lehiaketa elektronikotan parte hartzea Herri-erabilera anitzeko Osasun Txartel Elektroniko berriarekin (ONA)

Eusko Jaurlaritzak Herri-erabilera anitzeko Osasun Txartel Elektroniko berria (ONA) atera du. Besteak beste, Izenpek, euskal administrazioen ziurtapen eta sinadura digitalerako enpresak, onartutako sinadura elektronikoa aurreratua du.

Lehiaketa elektronikoko prozesuetan parte hartzen duten enpresako pertsona guztiek Izenpek ziurtagiridun txartela izan behar dute.

Hortaz, elektronikoki eskaintza egitea lehen baino errazagoa da; izan ere, enpresa baten lizitazio prozesuan parte hartzen duten pertsonak (erabiltzaile Aholkulariak edota Ahalduinak) honako 3 ziurtagiri hauetako edozein erabili ahal izango dute:

- Herri erabilera anitzeko Osasun Txartel Elektronikoa (ONA)
- Izenperen Herritarraren ziurtagiria
- Izenperen Entitatearen ziurtagiria



Eredu erraz, erabilgarri  
eta segurua



**ONA ESKATU**  
**ONA ERABILI**  
**ONA GOZATU**

### Izenpen Onartutako Sinadura Elektronikoaren zerbitzuak Kontratazio Elektronikoaren segurtasunaren funtsezkoa da

Prozedura publikoetan egiten den lizitazioa enpresen fakturazioaren zati garrantzitsu bat da. Eusko Jaurlaritzako agintari eta kontratazio-teknikariok badakigu prozesu kritikoa dela eskaintza egiten duten enpresa guztientzat, eta baita ekitaldi teoriko edo akademikoa ez dela inondik inora.

Horregatik, Kontratazio Elektronikoaren Eredua garatzeko, ahalik eta sistemarik ziurrenaren aldeko apustua egin dugu, non Onartutako Sinadura Elektronikoaren ziurtagirien teknologia erabiltzen baita, eskaintzen sinadurarako nahiz sinadurak berak enkriptatzeko. Hain zuzen, horien izaera, konfigurazioa eta aplikazioen izaerari esker, Kontratazio Elektronikoaren Sistemak kontratazioaren alderdi kritiko hauek bermatzen ditu:

- Baimendutako pertsonak bakarrik erabili ahal izatea, eta datu nahiz informazioetarako sarbidea izatea.
- Eskaintzaileen konfidentzialtasuna.
- Informatikako prozesuen babesa, baimendu gabeko manipulaziorik gerta ez dadin.
- Eskaintzen konfidentzialtasuna.

### ONA Txartel Berria eskatzeko guneak

ONA Txartel Berria pixkanaka zabalduko da, eta bi alderdi barne hartzen ditu nagusiki: batetik, geografikoa (hots, herriz herri); bestetik, korporatiboa edo erakundeen arabera.

ONA zein herri eta erakundetean eska daitekeen ezagutzeko, Izenpe-ren web orrialdean sartzea gomendatzen dizugu ([www.izenpe.com](http://www.izenpe.com)).

### ONA Txartel Berriaren inguruko informazioa telefonoz

Eusko Jaurlaritzak eta Izenpe-k Erabiltzaileen Arretarako Zentroa sortu dute, ONA Txartel Berriaren inguruan informazio gehiago edo zalantzaren bat argitu nahiz izanez gero, hara deitu ahal izateko.

Dei telefono honetara: **902 542 542**

